

Askatasuna eta askatasunak

Euskaldunon Egunkaria, 1994-01-04: 2.

Urtearen azkeneko egun hauetan irakurri dut prentsan Espainiako Autonomiek askatasun osoa dutela beren barrutietan erostetxeen egutegi eta ordutegiak arautzeko. Lorpen haundia! Honek gogorazten dit Jose Antonio Agirre lehendakariari behin entzuna: Askatasuna bere osotasunean defendatu behar dugula, eta ez baterako edo besterako askatasunaren komenientzira mugatutako zatiak. Giza-eskubide unibertsalak dira gure herriak Europaren aurrean eskatzen dituenak. Halere, bada gaur bizi dugun kezka bat: gizakiak bere kabuz pentsatzeko eta pentsatzen duena esateko eskubidea du, bai hitzez eta baita prentsa idatziz eta irrati-telebistaz ere, nolana, eta honetarako esaten denaren erantzule izateko gai izan dadin behar diren ikerketak egin eta informazioa jaso eta bere iritziak mugarik gabe zabaltzeko ere (19. artikulua). Oinarrizko askatasun denek bezala, honek badu mugarik, noski. Ezin du kazetariak nahi duen guztia esan. Baina Estatu batean epaitu behar duena, Legeekikoa da, eta ez Exekutiboa. Hiritar baten kasuan, *pertsona* bezala, esaten duena berearen erantzule da, prentsaren *bidea* hartzen bada, zuzendaria da, eta prentsa arduragabetzat jotzen bada, honetarako aginte demokratikoa duen legetiarra denak egin behar ditu karguak, eta bere arrazoibidea frogatu. Hemendik irtetea edo norbaitek indarrez ateratzea, da legez kanpo dagoena. Hau probatu zioten orain gutxi Corcuera ministroari. Hala jokatu al dute aurten ere.